



Esp.zk. SUBV_CON_COMPET/2024/4

DEIALDIA, DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN EMATEKO

KIROLAREN ZEIN ARIKETA FISIKOAREN ARLOKO ENTITATEEI, KIROL JARDUERA

IRAUNKOR JAKIN BATZUK ANTOLATZEAGATIK 2023-2024ko DENBORALDIAN

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri. ([2006ko 21. NAO](#)n, [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).**

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea 2023-2024ko denboraldian kirol-jarduera iraunkor jakin batzuk antolatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko kirolaren zein ariketa fisikoaren arloko entitateei.
2. Deialdiaren helburua: Iruñean kirol-jarduera iraunkor jakin batzuk egiten laguntzea.
3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak: Deialdi honen ondorioetarako, "kirol jarduera iraunkor" gisa joko da honako ezaugarri hauek guztiak betetzen dituen: a) iraupen orokorra 8 hilabete edo gehiagokoa eta urte bat baino gutxiagokoa izatea, salbu eta behar bezala arrazoitu eta baimendutako salbuespenen kasuan; b) kirol izaerakoa izatea, hala eskumena duten organismo publikoek aitortutako modalitate ofizialetan nola ez ofizialetan (betiere azken horiek ariketa fisikoa egitea badakarte eta gizarte inpaktu garrantzitsua badute); c) batez ere aisialdikoa izatea; d) federazio arloko esparru instituzional batean edo hortik kanpo egina izatea; e) adin orotako jendeari zuzendua izatea; f) parte-hartze librekoa eta Iruñeko herritarrei zuzendua izatea, muga bakarra izanik kirol izaerako balizko irizpide legalak eta erregelamenduzkoak; g) edozein kirol-eremutan egina izatea, eta h) berekin ekartzea kudeaketa-proiektu bat eta antolamendu-egitura bat sortzea besteak beste aurre egin ahal izateko –gehiago edo gutxiago jardueraren garrantziaren arabera– honako hauei: izen-emateak, baimen ofizialak, arauak eta barne-araudia, behar diren aseguru-estaldurak, segurtasuna, hedapena eta komunikazioa, langile tekniko eta irakasleak, barne antolamendua, eta baliabideak lortu eta kudeatzea. Dirulaguntzaren xede diren kirol jarduera iraunkorrek –aurreko baldintzez gain– jarraian aipatzen diren



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

betekizunak bete beharko dituzte ezinbestean. Horrela egin ezean, eskabidea ez da onartuko:

o Betekizun orokorrak:

- Oro har, Iruñeko udal-mugartean gauzatzea. Dirulaguntzaren xede den jarduerak, salbuespen gisa, Iruñeko udal-mugartea gainditzen badu, Udalaren interesen aldekoa izan beharko du, zuzenean edo zeharka, halako moduz non baldintza horrek aski justifikaturik gelditu beharko baitu espedientean, txosten arrazoitu baten bitartez, dirulaguntza eman baino lehen.
- 2023-2024ko denboraldian egitea (2023ko irailetik 2024ko ekainera).
- Dirulaguntzaren xede diren jardueren ezaugarri zehatz gisa adierazitakoak (H.1 apartatua).
- Entitate eskatzaileek estatutuetan jasota izan beharko dute, helburuen artean, deialdiaren xedeari loturiko jarduerak egiteko helburua.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 308.500 €

Hala deialdiaren hasierako gastua nola dirulaguntzaren ondorengo emakiden gastua udal-aurrekontuan kreditu egoki eta nahikorik izatera behartzen duen baldintza etenarazlearen pean geldituko dira Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 50/34100/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Entitate bakoitzari emanen zaion diru-kopuruak ezin izanen du gainditu aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren % 100, eta, edonola ere, banakako muga hauek egonen dira:

- A-1 lerroa) Kirola sustatzeko jarduerak: a) 30.000,00 euro bitarte, Fundazio Pribatuek antolatutako jarduerengatik. b) 19.500,00 euro bitarte, beste entitate batzuek antolatutako jarduerengatik.

- A-2 lerroa) Federatu gabeko kirol-ligak edo -txapelketak: 25.500,00 euro bitarte, kirol sustapeneko entitateek antolatutako kirol-jarduerengatik.

- A-3 lerroa) Kirol-entitateek antolatutako kirol-ikastaroetarako, honako parte-hartzaileen muga hauekin bat: 1.) 1.000 parte-hartzailetik gora entitateko (180.000,00 € bitarte); 2.) 200 parte-hartzailetik gora entitateko (49.000,00 € bitarte); 3.) 200 parte-hartzailetik behera entitateko (2.250,00 € bitarte).

Dirulaguntzaren lerro honetan "entitate bakoitzeko parte-hartzaile" kopurua esaten denean entitate horrek bultzatzen dituen ikastaro guztietako parte-hartzeari egiten zaio erreferentzia, betiere ikastaro horiek lerro horren barruan laguntzen badira.

4. Hainbanatzeko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu: Bi hainbanaketa mota egonen dira, eta era bananduan aplikatuko zaizkie deialdi honetako C.3 apartatuan aurreikusitako taldeetako bakoitzari:

Lehenik, "murriztapen-hainbanaketa", behin eskaera guztiak ebaluatuta H.1 eta H.2 apartatuetako irizpideak jarraituz, zenbatekoak C.3 apartatuan talde bakoitzari esleitutako gehieneko aurrekontua gaindituz gero.

Bigarrenik, "handitze-hainbanaketa" bat edo zenbait, behin lehenengo hainbanaketa eginda C.3 apartatuan jasotako banakako gehieneko zenbatekoa gainditzen duten eskaerak egonez gero, edo jaso



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

beharreko dirulaguntza jardueraren defizita baino handiagoa bada.

Lehenengo hainbanaketa proportzioan aplikatuko zaie talde bakoitzean onartutako eskaera guztiei. Bigarrenean, eskaera batzuetan potentzialki ken daitezkeen kopuruak proportzioan banatuko dira kasuan kasuko taldeko gainerako eskaeren artean, betiere gainditu gabe hala banakako gehieneko kopuruak nola jardueraren defizita; beraz, behar beste hainbanaketa egiten ahalko dira.

Soberakinik egonez gero talde batean, gainerako taldeetako eskaeren artean proportzionalki banatuko da, berriz ere "handitze-hainbanaketan" araua aplikatuz, hala behar izanez gero.

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	308.500 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izaten ahal dira onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

1. Legearekin bat eratuta egotea eta dagokien erregistroan izena emanda izatea, eskabidea aurkezteko mugaegunean, betiere indarra duten legeekin bat baldintza hori eskatzen ahal bada. Dokumentazio hori egunean eduki beharko dute.

2. Irabazi-asmorik gabekoa izatea.

3. Estatutuetan jasota izatea, helburuen artean, deialdiaren xedeari loturiko jarduerak egitea (kirol zein ariketa fisikoaren arloko jarduerak antolatzea eta sustatzea edo jarduera horiek sustatzen dituzten zentroak elkartzen dituztenak).

4. Iruñean edukitzea taldearen egoitza soziala nahiz zerga-egoitza. Salbuespenez, betekizun hau ez da nahitaezkoa izanen H apartatuan aipatutakoen arteko jarduera bat antolatzen duten entitateentzat, baldin eta salbuespen hori eskatzean justifikatu eta arrazoitzen badute diruz lagunduko den jarduera Udalaren interesekoa dela.

5. Administrazio-bideko zehapen irmorik jaso ez izana 2022-2023ko denboraldian jarraian aipatzen diren legeetan "oso astun" gisa tipifikatutako arau-hausteengatik:

o 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, Kirolean egon ahal den indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa.

o 15/2001 Foru Legea, uztailaren 5koa, Nafarroako Kirolari buruzkoa.

o 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, Ikuskizun publikoak eta aisia-jarduerak arautzen dituenak.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

1. Deialdi honen kargura dauden dirulaguntzen onuradunek gardentasun-betebeharrari buruzko Adierazpena aurkeztu beharko dute, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12. artikulua arautzen duena, honekin batera doan V. eranskinaren ereduarekin bat, eta, hala badagokio, erakundearen azken urteko kontuen kopia aurkeztu beharko dute. Adierazpen hori dirulaguntzak justifikatzeko agiriekin batera aurkeztuko da, eta oinarri hauetako P.2 apartatuan horretarako ezarritako epearen barruan.

Halaber, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, erakunde onuradunek Iruñeko Udalari eman beharko diote, honek aurretik eskatuta eta hamar eguneko epean, aipatutako 5/2018 Foru Legearen I. tituluan aurreikusitako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia.

2. Dirulaguntzaren xede diren kirol-eskaintzek ez dute izen ofizialean eramanen "udal" izenlaguna, ez baitira Udalarenak. Hala ere, jarduera bakoitzari emandako izenaren testu-lerro berean sartu beharko dira jardueraren eragin sozialen inguruan entitate bakoitzak hartutako konpromiso boluntarioei buruzko sinbolo txiki edo etiketa informatibo batzuk (H.2 apartatua). Sinbolo edo etiketa horiek herritarrei informazioa ematekoak izanen dira, eta jardueren izenen ondotik jarri edo kendu beharko dira entitatea sartzen den edo ez www.pamplona.es/eu/gaiak/kirola webgunean argitaratutako zerrenda eguneratuetan. Orri horretan deskargatzen ahalko ditu, baita ere, aipatu sinbolo horiek. Iruñeko Udalak publikoki hedatzen ahalko ditu, egoki jotzen dituen bideetatik, etiketaren bat jaso duten berdintasunari buruzko proiektuak, betiere arlo horretan jardunbide hobeagoen ereduak ikusarazte aldera.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea eta hedapena eman beharko diote dirulaguntzaren xede diren jarduera edo proiektuen udal-finantzaketaren izaera publikoari. Horretarako:



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Komunikazio edo publizitate idatzi zein grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan) Udalaren logotipoa txertatu beharko da, eta honako legenda hau: "Laguntzailea: Iruñeko Udala". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da, gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitatean lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da"
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman eta horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikuluekin bat: ☐ BAI ☐ EZ

Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Behar bezala justifikatuta dauden aurreikusi gabeko inguruabarrengatik beharrezkoa baldin bada diruz lagundutako proiektuan edo jardueran aldaketaren bat egitea –betiere aldaketek ez badute proiektuaren funtsa aldatzen–, idatziz eskatu beharko da –eskabide bat aurkeztuz– dirulaguntza kudeatzen duen alorraren baimena, aldaketa horien berri eduki bezain laster, betiere proiektua egin baino gutxienez 15 egun lehenago eta aldaketaren arrazoia aurkeztuta.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat aldez aurretik baimendu gabeko aldaketak ez dira kontuan hartuko dirulaguntzen ordainketa egiterakoan, eta kasu horietan jasoko den dirulaguntza murriztu egingen da.

G. ESKAERAK NON ETA NOIZ ARTE AURKEZTU:

1. Eskaerak aurkezteko tokia:

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako agiriak.

2. Eskaerak aurkezteko epea:

Eskaerak aurkezteko epea HILABETEKOA izanen da, deialdi hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Eskaerak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako)



eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkapen nahikoa edukita ordezkapen horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoentzat" izapiderako aurreikusitako jarraibideekin bat.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administraziok egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen edo agiriak aurkezten, edo bestela, ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen agiriok zer administraziok egin eta hartatik eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldez aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskaera aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagiria: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskaera aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan emandako jarraibideekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2. artikuluekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak aurreikusten badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak zein juridikoak (publikoak nola nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskaeran berariaz adierazi beharko da



taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, eta ahalorde askietsia eman behar zaio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat egingen da. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

Memoria hori deialdi honen I. eranskinean jasotako ereduarekin bat egin beharko da, eta deialdiaren H.2 apartatuarekin bat gizarte-eragina indartzeko ekintzen proiektu boluntarioaren azalpena eduki beharko du, halakorik egiten bada.

g) Aurrekontua: diru-sarrerak eta gastuak aurkezteko gidoia, deialdi honen II. eranskinarekin bat, salbu eta deialdia argitaratzen denerako jarduerak gauzatu badira dagoeneko eta III. eranskina (Justifikazioa: ordaindutako fakturen/gastuen eta diru-sarreraren zerrenda) aurkeztu badezakete; kasu horietan ez dute aipatutako II. eranskin hori aurkeztu beharko.

Telematikoki egiten ez diren izapideetarako, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatuak, edo, bestela, indarreko legeekin bat kautoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kautotuak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekartzen ahal dituen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

H.1 Jardueraren lehentasun-maila, udal- interesaren arabera.

Laguntzaren zenbatekoa jarduera antolatzean sorturiko defizitaren % 95 bitarte izaten ahalko da, edo % 100ekoa entitateak konpromisoa hartzen badu jardueraren berdintasun-efektua indartzeko bi ekintza gauzatzeko, deialdi honetako H.2 apartatuan aurreikusitakoarekin bat.

o A-1 lerroa: Kirola sustatzeko jarduerak: a) Iruñeko Fundazio Pribatuek antolatutako jarduerak, baldintza hauek osorik betetzen dituztenak: Iruñeko kirol-klub bati lotuta eta ekonomikoki horren menpe egotea, baldin eta klub horrek Kirol Kontseilu Gorenak profesionalizat hartzen dituen estatuko ohiko liga erregular ofizial batean parte hartzen badu, eta helburu izatea klubeko lehen taldea zein modalitatetan aritu eta horretan oinarritzko kirola sustatzea, koordinatzea eta garatzea. b) Iruñeko beste entitate batzuek antolatutako jarduerak, baldintza hauek osorik betetzen dituztenak: kirol-federazio batek antolatuak izatea, jarduerak kirol-modalitate ezberdinez osaturik egotea, eta parte-hartzaile guztiak edozein motatako desgaitasunen bat duten pertsonak izatea.

o A-2 lerroa: Federatu gabeko kirol-ligak edo -txapelketak, kirola sustatzeko entitate batek antolatuak, denboraldi osoa irauten dutenak, taldekako modalitatean, eta gutxienez 30 talde parte-hartzaile eta oinarritzko antolaketa-egitura dituztenak.

o A-3 lerroa: Kirol- eta/edo aisialdi-ikastaroak, beste entitate batzuek antolatutakoak, honako kirol-



modalitate hauetan: 1.) igeriketa helduentzat; 2.) eskola-igeriketa ikastorduetan; 3.) zenbait kirol desberdin, baldin eta parte-hartzaile guztiak gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak baldin badira eta Udalak aurrez horren gaineko balorazioa egin badu; 4.) parte-hartzaile guztiak 55 urtetik gorakoak dituzten kirolak, edo parte-hartzaileek patologiarik badute eta hori jarduera fisikoaren bidez hobetu badaiteke.

Horrez gain, ikastaro horiek honako betekizun hauek guztiak bete beharko dituzte dirulaguntzari heldu ahal izateko:

a) Instalazioez bezainbatean, entitate antolatzaileek ez dituzte izanen, oro har, beren kirol instalazioak; salbuespena egin liteke behar bezala justifikatu eta arrazoitutako kasuetan, baldin eta egiaztatzen bada norberaren instalazio jakin bat ekonomikoki mantentzea bereziki zaila dela.

b) Irisgarritasuna eta irekitasuna: Iruñeko herritar guztiei irekita egotea eta Udalaren kirol-instalazioak erabiltzea, noiz eta horien ezaugarriek, kokapenak edo erabilgarritasunak benetan ematen duten horretarako bidea.

c) Planteamendua: ez egotea ezein txapelketari edo txapelketa-prestaketari lotua, ezta kirol-teknifikaziora bideratua ere.

d) Iraupena: zortzi hilabetez gutxienez eta astean ordubete, salbu eta behar bezala justifikatu eta baimendutako kasuetan.

f) Arrazoizko prezioak: parte-hartzaile bakoitzarentzako kostua, egon litezkeen matrikulazio-kuotak barne, gutxienez 35 € eta gehienez 40 € izanen da, astean ordubeteko ikastaroetarako, eta astero ordubete baino gehiagoko ikastaroetarako, kuota adierazitako horren proportzionala izanen da. Aurreko tarte horretatik kanpo bestelako kosturik egonez gero parte-hartzaile bakoitzeko, arrazoiturik egon beharko du, eta Udalaren oniritzia eduki beharko du.

H.2). Berdintasunaren arloko jarduerak, berdintasuna sustatzen duten bi ekintzen bidez:

Dirulaguntza kalkulatzeko, entitateek egindako jardueraren defizitaren % 100 estaltzen ahalko dute, baldin eta atal honetan aurreikusten direnen artean bi ekintzaz osatutako proiektu boluntario bat egiten badute, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-eragina indartzeko.

Denboraldi honetan udal-dirulaguntzen deialdi honen edo beste batzuen bidez diruz lagundutako jardueren kasuan, proiektu bat aurkeztzen ahalko dute jarduera bakoitzeko, eta ezin izanen dute ezein berdintasun-ekintza erabili bi jardueratan edo gehiagotan aldi berean, horrek ez badakar berekin berriazko eduki berritzaile eta berezia gehitzea.

- Berdintasun-ekintza posibleak:

o Gutxienez bi proba edo lehiaketa misto egotea, eta horietan, sexu ezberdineko pertsonak elkarrekin parte hartzeaz gain, talde mistoentzako berriazko sariak egon behar dira. Lehiaketa misto horiek dirulaguntzaren xede den kirol jarduerakoak izateaz gain aisialdikoak ere izan daitezke, baldin eta kirol-lehiaketa jakin baten araudi ofizial eta federatiboak ez badu halakorik aurreikusten.

o Marketin-estrategia orokor bat txertatzea kirol-ekitaldian edo -jardueran, berriaz zuzendua beren sexua edo bestelako baldintzatzaile pertsonalak direla-eta kirol, ekitaldi edo jarduera horretan tradizionalki gutxi izan diren pertsonak bereganatzera. Estrategia hori behar bezala dokumentatu beharko da, inplementazioan lorturiko emaitzekin batera, eta publiko egin beharko da.



o Sustapen-proiektu bat, edozein adinetako emakumeen artean, baina bereziki eskola-adinekoetan eta hirugarren adinekoetan, kirol- eta osasun-arloetako erakunde ofizialek aholkatzen duten ariketa fisiko zein kirol mota eta kantitatea egin dezaten bultzatzeko. Horretarako AFKS estrategia (Ariketa Fisiko Kuantifikatu eta Saritua) erabiliko da; horren bidez une jakin batean egindako ariketa fisikoa kuantifikatzen da, gerora helburu jakin batzuk planteatze aldera, horiek oinarri hartuta emakume eta neskatoek nolabaiteko saria eskura dezaten.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeako, balorazio-batzorde bat eratuko da, jarraian aipatutako hauek osatua:

Epaimahaiburua:	Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko zinegotzi ordezkaria. Ordezkoa: beste zinegotzi ordezkari bat
Mahaikideak:	
1.	Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria. Ordezkoa: Alor bereko idazkari teknikoa.
2.	Udaleko kirol-teknikaria Ordezkoa: Kirol unitateko beste teknikari bat.
3.	Udaleko Erdi-mailako teknikaria, Kirolera atxikia. Ordezkoa: Alorreko beste teknikari bat.
Idazkaria:	Alorreko Zuzenbide-lizentziaduna, kirol arlokoa. Ordezkoa: beste Zuzenbide-lizentziadun bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat egingen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat egingen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

Instrukzio-organoak zainduko du dagozkien alorretara bidaltzeko haien xede edo helburua medio Udalaren beste alor horietan kokapen egokiagoa izaten ahal duten proiektuak.

Balorazio-batzordeak beharrezko azalpen eta argibide guztiak eskatzen ahalko ditu nahitaezko txostena egin eta baloratzeko.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: ebatzi eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsiz gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta pertsona edo entitate eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitzatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea kontatzeko beste sistema bat:

Behin prozedura ebazteko gehieneko epea berariazko ebazpenik eman gabe igarota, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN GASTUAK:

1. Dirulaguntzen xede izaten ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira dirulaguntzen xede den jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek diruz laguntzen ahalko dira:

o L.1.1 Berariazko arbitrajeak eta epaileak.

o L.1.2 Kirol-instalazioen erabilera.

Kontzeptu horretan honako gastu hauek sartzen ahalko dira:

- Bereak ez diren kirol-instalazioak erabiltzea.

- Norbere kirol-instalazioak erabiltzeak eragindako zeharkako gastuak, horiek kalkulatzeko metodologia ezin hobeki justifikatua eta arrazoitua erabiliz eskaeran, nahitaezko ezaugarri hauekin bat: a) oro har onartzen diren kontabilitate-printzipio eta -arauei men egitea; b) kostuak entitateek diruz lagundutako jarduera benetan gauzatzen duten aldiari dagozkionak izatea; c) kostuak diruz lagundutako jardueretako parte-hartzaile zehatzei dagozkienak izatea –eta aintzat hartzea, beharrezkoa izanez gero, balitekeela uneraren batean instalazioa partekatu izatea–; d) zeharkako gastuek soilik eragitea argi- eta ur-hornidurari, garbiketa-gastuei, atezaintzakoei, instalazioaren Erantzukizun Zibileko aseguruari eta berokuntzari (ezin izanen da bestelako gasturik egotzi, hala nola telefono eta komunikaziokoak, segurtasunekoak oro har, mantentze- zein konponketa-lanetakoak, kudeaketa-administrazioak eta ondasun higiezinak erostearen ondoriozko inbertsio-amortizazioak).

-Administrazio Publikoei ordaindu beharreko tasak, espazio publikoak edo naturalak erabiltzeagatik, betiere Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.7 artikuluan adierazitakoari kontra egiten ez badiote.

o L.1.3: Joan-etorriak eta mantenua.

Iruñeko ikastetxeetako kirolarien joan-etorriek eragindako gastuetan sartzen ahalko dira kirolari horiek



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

dagokien ikastetxetik kasuan kasuko kirol-jarduera egiten den lekura eraman eta bueltan ekartzekoak. Halaber, kirolarien edo teknikarien Iruñean barnako joan-etorriak ere sar litezke, baldin eta jarduerak iraun bitartean eta hiritik atera gabe egiten badira, eta horiek behar bezala justifikatu eta arrazoitzen badira.

- Epigrafe honetatik eta diruz lagundu daitekeen beste edozein gastu-kontzeptutik kanpo daude edozein motatako protokolo- edo ospakizun-otorduak (jardueretan egon litezkeen catering-zerbitzuak barne).

o L.1.4. Aseguru- eta osasun-estaldurak. Epigrafe honetan sartuko dira, batetik, Erantzukizun Zibileko aseguruak eta Istripu-aseguruak, baldin eta dirulaguntzaren xede den jarduerarako berariazkoak badira. Bestetik, kirol-jarduera iraunkorrari lotutako berariazko osasun-estaldura ere barne egonen da (anbulantzia, osasun-langileak, botika-kutxa, etab.), legeak edo erregelamenduek hala aginduta hori eskatzen ahal den partean, eta betiere kanpo utzita desfibriladoreen edo antzeko osasun-ekipamenduen erosketa. Bazter geratuko da unitate bakoitzeko 50 € (zergak kanpo) baino gehiagoko kostua duen botika-materialeko edozein elementu.

o L.1.5. Dirulaguntzaren xede den kirol-jardueraren berezko kirol-materiala, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baditu: a) kirol-jarduera iraunkorrerako berariaz erositzea izatea eta hura erabili ostean erabiltzeko edo ia erabiltzeko izatea; b) kirol-materialeko elementu bakoitzaren kostua ez izatea 100 € (zergak kanpo) baino gehiago. Edonola ere, epigrafe honetatik eta diruz lagundu daitekeen beste edozein gastu-kontzeptutik kanpo daude berez kirolarien ohiko poltsetan egoten ez diren kirol-jantzien erosketa posibleak.

o L.1.6. Kirol-jardueren antolatzaileendako zein boluntarioendako ordainsariak eta sariak, eta parte hartzen duten kirolariendako dietak.

o L.1.7. Jardueraren berariazko hedapena.

o L.1.8. Jardueraren gizarte-eragina indartzen duten ekintzak. Hemen bakarrik sartzen ahalko dira deialdiaren H.2 apartatuko bi ekintza konprometituak osorik txertatzen dituzten proiektu boluntarioek eragindako kostuak. Bestelako gizarte-ekintzek eragindako gastuak ezin izanen dira epigrafe honetan sartu, ez beste edozeinetan.

o L.1.9. Aurretik sartu ez diren bestelako gastuak, behar bezala justifikaturik eta arrazoiturik, baldin eta Balorazio Batzordearen irizpidearekin bat kontuan hartzekoak badira. Epigrafe honetatik eta diruz laguntzen ahal den beste edozein gastu-kontzeptutik kanpo daude edozein motatako kirol- eta administrazio-zehapenak.

Dirulaguntza jasotzen ahal duen gastu bakoitzaren zenbatekoa, banan-banan hartuta, 12.000 eurotik gorakoa denean –ekipamendu ondasunen horniduraren kasuan edo aholkularitzako zein laguntza teknikoko enpresen zerbitzuen kasuan–, onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaileei dena delako zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa bere gain hartu baino lehen, salbu, dirulaguntza jasotzekoak diren gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan hornidura edo zerbitzu hori egin dezaketen behar adina entitaterik ez bada edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Aurkeztutako eskaintzen artean bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-printzipioei egin behar zaie men, eta eskaintzarik merkeena hautatzen ez bada, memoria batean berariaz justifikatu behar da hartutako erabakia. Eskaintzak, bestalde, justifikazioari erantsiko zaizkio, edo, bestela, dirulaguntzaren eskabideari.

Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) apartatuaren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira inoiz ere dirulaguntzen xede izanen: kirolarien eta langile teknikarien denboraldiko lizentziak eskuratzeko entitateak ordaindutako federazio-kuotak, ez eta horren parte proportzional hipotetiko bat ere, ekitaldiko egunetarako hainbanatua. Eta aurrez aipatu direnak.

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: *kirol-jarduera iraunkorretarako, 2023ko irailetik 2024ko ekainera bitarteko aldian egiten direnak.*

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☐ BAI ☒ EZ

Ehunekoa:

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoa. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xede den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: dirulaguntzaren zenbatekoa gehienez ere jardueraren antolakuntzan eragindako defizitaren % 95ekoa izaten ahalko da, edo % 100ekoa, entitateak konpromisoa hartzen badu H.2 apartatuan aurreikusitako gutxieneko ekintza sozialekin; hori guztia C.3 apartatuan aurreikusitako mugekin bat.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak helburu bera duten dirulaguntzekin bateraezinak izanen dira soilik, baldin eta horiek Iruñeko Udaleko edozein alorretatik jaso badira, honako bide hauetako bat erabilita: dirulaguntzetarako deialdiak, lankidetzak-hitzarmenak, kontratuak edo bestelako akordioak. Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, beste administrazioek, erkidegoko, estatuko edo nazioarteko entitate publiko, pribatu edo partikularrek emaniko dirulaguntzak aldi berean eskuratzen badira, eta ez badira lehenago justifikatu, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzen ahalko da.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xede den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek erdietsi direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.

☒ Konturako ordainketa:

☐ Ordainketa zatikatua:

☐ Ordainketa aurreratua:

☒ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 33.2 artikularekin bat, emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren % 75 aurrez ordainduko da, betiere dirulaguntza emateko ebazpena eman eta jakinarazi ostean.

Behin jarduera eginda, onuradunek P apartatuan eskatutako agiriak aurkeztuta gastuak justifikatu eta justifikazio hori onetsi eta gero, dirulaguntzaren gainerako % 25a ordainduko da.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu, aldezturik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza horiek, osorik edo parte batean, zor dituzten kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeen eraketa:

☒ BAI ☐ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa: aurrez ordaindu beharreko kopurua 60.000 euro baino gehiago bada, entitate onuradunak banku-abal askietsia aurkeztu beharko du, edo, bestela, emandako laguntzak zenbat jo eta horren % 4 sartu beharko du Udal Diruzaintzan, aurrerakinaren berme gisara.

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza ematerakoan aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, modalitate hau erabiliko da:

☒ Justifikazio-kontua:

☒ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Ordenantzaren 35. artikuluko justifikazio-modalitate hau erabiliko dute 60.000 euro baino gehiagoko dirulaguntza jasotzen dutenek soilik. Gainerako eskaerarako justifikazio kontu erraztuaren modalitatea erabiliko da.

Bi kasuetan, justifikazioa telematikoki aurkeztu beharko da, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapidearen bitartez: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa".

60.000 EURO BAINO GEHIAGOKO ESKAERETARAKO dirua jaso duen jarduera dela-eta egindako gastuak oro justifikatu behar dira (diruz lagundutako jardueraren % 100ari dagozkionak, ez bakarrik dirulaguntzaren zenbatekoaren adinakoari), aitortzailearen erantzukizunpean, gastuen zuzeneko egiaztagarriak aurkeztuta. Fakturak eta balio frogagarria duten bestelako dokumentu baliokideak



izan beharko dute, betiere trafiko juridikoan baliodunak direnak edo indar administratiboa dutenak, dirulaguntzaren xedea bete dela egiaztatze aldera.

Justifikazio-kontua agiri hauek osatuko dute:

a) Ebaluazio-memoria, dirulaguntzen xedea den jardueraren gainean, non xehetasunez aitortuko baitira dirulaguntzen bidez finantzatu diren jarduerak eta haien kostua. Honako hau izanen da, gutxienez, memoriaren edukia:

- Programaren edo proiektuaren izena.
- Dirulaguntzaren xedea, aurkeztutako aurrekontu eta proiektuarekin bat.
- Egindako jarduerak eta erdietsi nahi ziren helburuen zein lortutako emaitzen deskribapena.
- Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak.
- Finantzabideen zerrenda: Dirulaguntzarekin finantzatu diren jardueren deskribapena, haien kostua adierazita, bai eta norbere funtsekin edo beste dirulaguntzekin finantzatu diren jarduerak ere aipatuta.
- Ondorioak.

b) H apartatuko A-3 lerroan adierazitako aisialdiko ikastaroetarako, ikastaro horietako bakoitzean parte hartu dutenen zerrenda, IV. eranskinarekin bat.

b) Egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda laburra eta ordenan zenbakitua, nahitaez deialdiaren III. eranskina erabiliz; horri erantsiko zaizkio, modu ordenatuan, dagozkion egiaztagiria.

c) Egiaztagiria, legeekin bat jaulkitako fakturak, ordainagiria eta baita nominak, tributua zein Gizarte Segurantzako kuotak eta, oro har, gastuak frogatzeko gainerako egiaztagiri baliokideak ere, trafiko juridikoan balioa dutenak edo indar administratiboa dutenak, betiere modu korrelatiboan ordenaturik aurreko zerrenda zenbakituan emandako ordena-zenbakiaren arabera. Jatorrizko agiriak edo horien kopia konpultsatuak entitate onuradunak gorde beharko ditu, gutxienez, lau urtean. Aurrekoaz gain, honako baldintza hauek bete beharko dira:

d.1) Faktura jaulkitzen duen entitatea BEZetik salbuetsirik badago, organo eskudunak emandako egiaztagiria aurkeztu beharko da kasuan kasuko salbuespena egiaztatu eta horretaz fede emateko.

d.2) Langileria gastuak soldata-kostu gisara egiaztatzeke, beharrezkoa da honako agiri hauek aurkeztea: lan-kontratuaren kopia, langileei dagozkien nominak, jasotzaileak sinaturik eta ordainduta, edo, bestela, bankuaren abonua-agiria, eta Gizarte Segurantzaren kotizazioei dagozkien ziurtagiriak.

d.3) Proiektua gauzatzeko aurreikusi den dataz bestekoa duten fakturak onartuko dira, baldin eta organo eskudunak aldeztu aurretik proiektuaren aldaketaren bat baimendu eta aldaketa horrek proiektua gauzatzeko epeari eragiten badio.

d.4) Agiriekin edozein gastu-konzeptuari lotutako zeharkako gastu-ehunekoaren kalkulua edo zenbatespena jasoz gero, ez dira onartuko agiri horiek, baldin eta dagozkion fakturak erantsen ez badira, eta deialdi honen L.1. apartatuan dirulaguntzen xedetzat aurreikusitako gastuetara doitzen ez badira.

e) Hartzekodunei ordaindu izana egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ordaindu izana banku-zordunketa bidez egiaztatu behar da, behar bezala sinatutako hartu-agiri baten bidez edo, bestela, aurkeztutako fakturak ordaindu egin direla ziurtatzen duen beste agiri bat aurkeztuz.

f) Dagokion itzulketaren ordainketa-gutuna, baldin eta aplikatu gabeko geldikirik bada edo dirulaguntzen xede izan den jardueraren kostua baino diru gehiago jaso bada, eta horri dagozkion berandutze-interesak.

Nolanahi ere, dirulaguntzaren onuradunak aurkeztutako justifikazioari balorazio-txosten bat erantsi



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

beharko zaio, dagokion Udaleko teknikariak sinatuta. Bertan adierazita geldituko da guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zer akats eta inguruabarrek eragozten duten justifikazioa onestea.

Halaber, diru-kopurua kobratu izanak dirulaguntzak jaso dituzten kirol-entitateen kontabilitate edo erregistro liburuan agertu behar du, betiere kirol-entitateok halakorik izatera behartuta badaude.

Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, beste administrazio edo entitate publiko edo pribatuak emaniko dirulaguntzak batera eskuratzen badira, horien berri aldeztu aurretik jakinarazi gabe, aldatzen ahalko da dirulaguntza emateko ebazpena.

Azkenik, benetako defizita aurrekontuan aurreikusitakoa baino txikiagoa denean, inguruabar hori kontuan hartuko da behin betiko dirulaguntza, eta beraz, azkenean ordaindu behar den zenbatekoa murrizteko.

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukirik: ☐ BAI ☐ EZ

☐ Justifikazio-kontu erraztua.

Justifikazio-modalitate hau erabiliko dute 60.000 euro edo gutxiagoko dirulaguntza jasotzen dutenek.

60.000 euroko edo GUTXIAGOKO ESKAERETARAKO, justifikazio-kontua agiri hauek osatuko dute:

a) Ebaluazio-memoria, dirulaguntzen xedea den jardueraren gainean, non xehetasunez aitortuko baitira dirulaguntzen bidez finantzatu diren jarduerak eta haien kostua. Honako hau izanen da, gutxienez, memoriaren edukia:

- Programaren edo proiektuaren izena.

- Dirulaguntzaren xedea, aurkeztutako aurrekontu eta proiektuarekin bat.

- Egindako jarduerak eta erdietsi nahi ziren helburuen zein lortutako emaitzen deskribapena.

- Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak.

- Finantzabideen zerrenda: Dirulaguntzarekin finantzatu diren jardueren deskribapena, haien kostua adierazita, bai eta norbere funtsekin edo beste dirulaguntzekin finantzatu diren jarduerak ere aipatuta.

- Ondorioak.

b) Deialdian aurreikusitako III. eranskina, beteta. Bertan azalduko da jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta agiria identifikatuta eta horren zenbatekoa, jaulkitze-data eta ordainketa data zehaztuta; diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo dirulaguntzak ere zehaztuko dira, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

c) H letrako A-3 lerroan adierazitako aisialdiko ikastaroetarako, ikastaro horietako bakoitzean parte hartu dutenen zerrenda, IV. eranskinarekin bat.

d) Halakorik behar balitz, ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzultzekoa.

Gero, behin aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, egoki jotzen diren gastuen zein ordainketen egiaztatutako diru eskatuko dira, eta haien bidez dirulaguntzaren aplikazioa egokia izan den ala ez egiaztatuko da. Agiri horiek dirulaguntza kudeatzen duen unitateari aurkeztuko zaizkio.



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Egindako gastuak eta diruz lagundutako gastuen ordainketak egiaztatzeko agirien ehuneko hoge gutxienez eskatuko da, betiere horiek ahalbidetu beharko dutelarik diruz lagundu eta egindako gastu osoaren % 30 gutxienez egiaztatzea.

Dirulaguntzetan murriztapenak aplikatzen ahalko dira aurreko justifikazio-kontuaren prozeduran adierazitako kasu berberetan.

Justifikatzeko bi modalitateetan, aurkeztutako justifikazioa aztertu eta gero, Udaleko teknikari eskudun batek txosten bat egin eta sinatuko du. Bertan espresuki adierazita geldituko da guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitate-orrien aurkezpena (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitate-orriak ofizialak direla, eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epea: 2024ko urriaren 31ra bitarte.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bategi ukitzen badu onuraduna.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

a) Ez betetzea dirulaguntzaren xedea den helburua.

b) Jasotako funtsen erabilera justifikatzeko betebeharra ez betetzea.

c) Onuradunek bateragarriak diren dirulaguntzen bidez jasotako zenbatekoak jardueren kostuaren muga gainditzea, muga hori zenbatean gainditu eta hainbestean.

d) Oinarri honetan aipatzen diren egiaztapenei oztopoak jartzea edo horiek egiten ez uztea.

Dirulaguntza itzularazteko ebazpena organo emaileak emanen du, behin espedientea instruitu eta gero, betiere aplikagarriak diren lege orokorrekin bat.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka



NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

errekurtso hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsoa, administrazio-egintzen egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

Deialdi honen P.1 apartatuan, ulertuko da markaturik dagoen justifikazio-modalitatea "justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat)" dela 60.000 €-ko edo gehiagoko dirulaguntzetarako, eta "justifikazio-kontu erraztua", 60.000 €-tik beherakoentzat.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ I. ERANSKINA. MEMORIA.

☒ II. ERANSKINA. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AURREKONTUA.

☒ III. ERANSKINA. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN FAKTUREN ZERRENDA.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

- IV. ERANSKINA. AISIALDI-IKASTARO BAKOITZEKO PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA. (A-3 lerroa soilik: Ikastaroak)
- V. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*



I. ERANSKINA
MEMORIA: PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Izena:	
Helburuak:	
Gauzatu beharreko jarduera; hemen azaldu behar da, baita ere, deialdiaren H.2 apartatuarekin bat gizarte-eragina indartzeko egiten diren ekintzen proiektu boluntarioa, halakorik eginez gero	
Tokia:	
Iraupena:	
Hasiera-data:	
Bukaera-data:	
Kuotagatiko diru-sarrerak (ikastaroetan bakarrik)	
Aurreikusitako parte-hartzaileen kopurua:	Emakume parte-hartzaileak: Gizonezko parte-hartzaileak:
Entitate eskatzailearen Zuzendaritza Batzordea osatzen duten kideak	Emakumeak diren kideak: Gizonak diren kideak:
Proiektuaren garrantzia eta eragina:	

Sinadura:

Izen-abizenak:

Iruñean, 20..(e)ko
.....aren
..... (e)(a)n



II. ERANSKINA

AURREKONTUA: DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK AURKEZTEKO GIDOIA

GASTUAK	
Gastu-kontzeptua (Deialdiaren L.1 apartatuan aurreikusitako ezaugarriekin bat)	Zenbatekoa (€)
1.- Berariazko arbitrajeak eta epaileak	
2.- Kirol-instalazioen erabilera eta nahitaezko segurtasun pribatua ekitaldietan	
Norberarenak ez diren kirol-instalazioak erabiltzea	
Norberaren kirol-instalazioak erabiltzeak eragindako zeharkako gastuak	
Federazioek ezartzen ahal dituzten segurtasun pribatuko gastuak	
Administrazio publikoei ordaindu beharreko tasak	
3.- Joan-etorriak, ostatu-hartzeak eta mantenuak	
4.- Aseguru- eta osasun-estaldurak	
5.- Kirol-materiala, deialdian aurreikusitako baldintzekin bat	
6.- Kirol-jardueren antolatzaileendako zein boluntarioendako ordainsariak eta sariak, eta parte hartzten duten kirolariendako dietak.	
7.- Jardueraren berariazko hedapena.	
8.- Jardueraren gizarte-eragina indartzen duten ekintzak –H.2 apartatuan aurreikusitakoen artean zein egiteko konpromisoa hartu eta horiek soilik–	
9.- Aurretik sartu ez diren bestelako gastuak, behar bezala justifikaturik	
GASTUAK, GUZTIRA:	

DIRU-SARRERAK	
Beste Administrazio Publiko batzuen dirulaguntzak	
Babesleen ekarpenak	
Kirolarien kuotak	
Federazioaren diru-sarrerak	
Beste diru-sarrera batzuk	
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA:	

Sinadura:					
Izen-abizenak:					
Iruñean, 20..(e)ko					
.....aren					
..... (e)(a)n					

*** Ezinbestekoa da proiektu bakoitzeko halako eranskin bat betetzea, entitate batek proiektu bat baino gehiago bultzatzen duen alde batera utzita**



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

**ÁREA DE CULTURA, FIESTAS, EDUCACIÓN
Y DEPORTE**
Deporte

**KULTURAKO, JAIETAKO, HEZKUNTZAKO
ETA KIROLEKO ALORRA**
Kirola



III. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIOA: ORDAINDUTAKO FAKTUREN/GASTUEN ETA DIRU-SARREREN ZERRENDA

1. Berariazko arbitrajeak eta epaileak						
Zk.	Hornitzailea/hartzailea	Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Ordainketa data	Kontzeptua
	... Ilara-kopurua gehitu edo gutxitu, beharren arabera					
1. gastu-kontzeptuaren guztizkoa:						
2. Kirol-instalazioen erabilera eta nahitaezko segurtasun pribatua ekitaldietan						
Zk.	Hornitzailea/hartzailea	Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Ordainketa data	Kontzeptua
	... Ilara-kopurua gehitu edo gutxitu, beharren arabera					
2. gastu-kontzeptuaren guztizkoa:						
3. Joan-etorriak eta mantenua						
Zk.	Hornitzailea/hartzailea	Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Ordainketa data	Kontzeptua
	... Ilara-kopurua gehitu edo gutxitu, beharren arabera					
3. gastu-kontzeptuaren guztizkoa:						
4. Aseguru- eta osasun-estaldurak						
Zk.	Hornitzailea/hartzailea	Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Ordainketa data	Kontzeptua
	... Ilara-kopurua gehitu edo gutxitu, beharren arabera					
4. gastu-kontzeptuaren guztizkoa:						



5. Kirol-materiala, deialdian aurreikusitako baldintzekin bat

Zk.	Hornitzailea/hartzailea	Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Ordainketa data	Kontzeptua
	... Ilara-kopurua gehitu edo gutxitu, beharren arabera					

5. gastu-kontzeptuaren guztizkoa:

6. Kirol-jardueren antolatzaileendako zein boluntarioendako ordainsariak eta sariak, eta parte hartzen duten kirolariendako dietak.

Zk.	Hornitzailea/hartzailea	Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Ordainketa data	Kontzeptua
	... Ilara-kopurua gehitu edo gutxitu, beharren arabera					

6. gastu-kontzeptuaren guztizkoa:

7. Jardueraren berariazko hedapena.

Zk.	Hornitzailea/hartzailea	Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Ordainketa data	Kontzeptua
	... Ilara-kopurua gehitu edo gutxitu, beharren arabera					

7. gastu-kontzeptuaren guztizkoa:

8. Jardueraren gizarte-eragina indartzen duten ekintzak (bakarrik adierazi H.2 apartatukoaren artean hautatutako bien gastua)

Zk.	Hornitzailea/hartzailea	Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Ordainketa data	Kontzeptua
	... Ilara-kopurua gehitu edo gutxitu, beharren arabera					

8. gastu-kontzeptuaren guztizkoa:

9. Aurretik sartu ez diren bestelako gastuak, behar bezala justifikaturik

Zk.	Hornitzailea/hartzailea	Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Ordainketa data	Kontzeptua



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

ÁREA DE CULTURA, FIESTAS, EDUCACIÓN
Y DEPORTE
Deporte

KULTURAKO, JAIETAKO, HEZKUNTZAKO
ETA KIROLEKO ALORRA
Kirola

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

	... Ilara-kopurua gehitu edo gutxitu, beharren arabera					
9. gastu-kontzeptuaren guztizkoa:						
GASTUAK, GUZTIRA (gastu kontzeptuak, 1.etik 9.era)						

DIRU-SARRERAK	
Beste Administrazio Publiko batzuen dirulaguntzak	
Babesleen ekarpenak	
Kirolarien kuotak	
Federazioaren diru-sarrerak	
Beste diru-sarrera batzuk	
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA:	

Sinadura:					
Izen-abizenak:					
Iruñean, 20..(e)ko					
.....aren					
..... (e)(a)n					

*** Ezinbestekoa da proiektu bakoitzeko halako fitxa bat betetzea, entitate batek proiektu bat baino gehiago bultzatzen duen alde batera utzita**



IV. ERANSKINA
AISIALDI-IKASTARO BAKOITZEKO PARTE-HARTZAILEEN ZERRENDA (*)

Aisialdi-ikastaroa honen inguruan:	
	Taldea:
Begiralea	
Begiralearen telefono-zenbakia/k	

	Izen-abizenak	Iruñean errolatua (Bai/ Ez)	NAN	Jaioteguna (Urtea)
1.				
2.				
3.				
4.				
5.				
6.				
7.				
8.				
9.				
10.				
11.				
12.				
13.				
14.				
15.				
16.				
17.				
18.				
19.				
20.				
21.				
22.				
	Behar beste ilara gehitu edo kendu			

(*): IV. eranskin bat bete behar da H.1. klausulako A-3 lerroan adierazitako aisialdirako kirol-ikastaro bakoitzaren jarduera-talde bakoitzeko.

Sinadura:				
Izen-abizenak:				
Iruñean, 20..(e)ko				
.....aren				
..... (e)(a)n				



-V. ERANSKINA-

-ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ-

Izen-abizenak: NAN:..... Nire kabuz
edo honako hau ordezkatzuz (dagokionaren arabera):..... IFZ:..... Jakinaren
gainean nago dirulaguntzetarako deialdi hau egin dela, norgehiagokako araubidean, xede
honetarako: DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN EMATEKO KIROLAREN ZEIN ARIKETA
FISIKOAREN ARLOKO ENTITATEEI, KIROL JARDUERA IRAUNKOR JAKIN BATZUK ANTOLATZEAGATIK

Honako hau adierazten dut gardentasun-betebeharrez bezainbatean:

- ☐ **Gardentasun-betebeharra bete behar ez duen** pertsona edo entitatea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.
- ☐ **Gardentasun-betebeharra bete behar duen** entitatea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta, hortaz, aipatu 12.4 artikuluan aurreikusitako informazioa jakinarazten dut ondoko koadroan eta entitatearen urteko azken kontuak txertatzen ditut.

OHAR GARRANTZITSUA: aipatutako Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 3.c eta 12. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, gardentasun-betebeharrak bete behar dituzte urtebetez 20.000 euro baino gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate pribatuek, edo jasotako laguntzek edo dirulaguntzek entitate horien urteko diru-sarrera guztien % 20 egiten badute gutxienez, baldin eta gutxienez ere 5.000 euroko kopurura iristen badira.

ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ				
ENTITATEA		IFK		
ORGANOA	KARGUA	ORDAINSARIAREN ZENBATEKOA	KONTZEPTUA	ZERTARAKO



Ayuntamiento de
Pamplona | **Iruñeko**
Udala

T. 948 420 100 / 010
www.pamplona.es/e

ÁREA DE CULTURA, FIESTAS, EDUCACIÓN
Y DEPORTE
Deporte

KULTURAKO, JAIENTAKO, HEZKUNTZAKO
ETA KIROLEKO ALORRA
Kirola

--	--	--	--	--

Iruñean, (e)ko aren (e)(a)n
(Sinadura)

DATUEN BABESA: Iruñeko Udala da arduradun botere publikoez baliatuz dirulaguntza kudeatzeko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira–, horiek ezabatzeko eta bestelako eskubideak gauzatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es/eu webguneko Pribatutasun-politikan kontsulta ditzakezu.